

Beasain BHI

Ibilaldi antropologiko-zientifikoa

Maiatzaren 26an, larunbata, goizean goiz eman zitzaion hasiera mendi irteerari. Autobusa hartu Beasaingo geltokian eta hor goaz Lizarrustira. Goiz busti xamarra izan arren, eguraldiak hobera egingo zuela nahi genuen pentsatu.

Ibilaldian zehar, bost ikerlari eta zientzialari izan genituen:

- Josean Mujika, historialaria
- Arantxa Bodego, geologoa
- Ane Dorronsoro, geologoa
- Mikel Etxeberria, biologoa
- Idoia Goikoetxea, biologoa

Aterkia irekita abiatu ginen arren, laster atertu zuen. Gure lehen helburua Lareoko urtegia heltzea izan zen. Urtegia ia beteta dagoenez, inguru zoragarria genuen begien aurrean. Orduan, lehen trumoi hotsak entzun ziren. Guk alde zuzenetik prestatutako planari eutsi genion eta Baiarrate aldera ekin genion. Han ginela, ekaitz gogorak astindu gintuen: trumoa, eurijesak... Zorua erreka, putzu eta buztin bilakatu zen. Horrela segitzetik ez zegoela eta buelta hartu eta Lizarrustira itzuli ginen.

Hara itzulitakoan, hamaiketako egin ondoren, parketxean dagoen maketaren bueltan hainbat azalpen eman zizkiguten gure adituek:

- Arantxak eta Anek milioika urte atzera egin zuten bilakaera geologikoa aztertzeko. Kareharriak sortu dituen paisaiak aipatu zituzten: mailaskak, dolinak, kobazuloak... Bereziki azpimarratu zuten Ataunen dagoen altxor geologikorik handienetakoa: Aitzarteko domoa.
- Mikelek, behin glaziazio garaia pasatu ondoren inguru horretan zegoen landaredia eta gaur egun dagoena oso antzekoak zirela aipatu zigun.
- Joseanek gizakien ehorzketari buruz hitz egin zigun. Aztarnarik zaharrenak 6000 urte inguruak dira. Garai hartan, trikuharri eta kobazuloetan egiten zituzten ehorzketak. Geroago, gorpuak errausten hasi omen ziren.
- Idoiak indusketak egiten direnean gorpuzkinak bereizteko erabiltzen dituzten irizpideak aipatu zituen: aldaka hezuraren itxura, garezurra, hortz-haginak...

Bertatik bertara ikusterik izan ez genuena maketaren gainean irudikatu ondoren, etxera itzultzeko garai iritsi zen. Txango guztiz interesgarria. Han izan gineno, eguraldi hobegoarekin ahal bada, Lareo-Baiarrate-Jentilarri-Ondarre-Argarbi ingurua ezagutzeko arantza ongi itsatsia geratu zitzaigun. Ea aurtengo uda amaitzerako lortzen dugun!